



ZARAUZKO UDALA

BIDE EDO LEKU PUBLIKOAK PUBLIZITATE EZ KOMERTZIALAREKIN ERABILTZEARI BURUZKO ORDENANTZA

1. artikulua

Helburu komertzialera edo sustapen ekonomikora zuzenduta ez dagoen publizitatearekin udalerriko bide edo leku publikoetan partikularrek egiten duten erabilera arautzen du ordenantza honek. Helburua da bide edo leku horien erabilera publikoak sortzen dituen eskubide desberdinak elkarrekin bateragarri izatea, kontuan hartuta, gainera, udal administrazio honen zeregina dela bide eta leku horiek egoera onean edukitzea.

2. artikulua

Orohar bide edo leku publikoen erabilera gertatzen da, bai horiek publizitate bitartekoekin materialki okupatzen direnean, bai bide edo leku publiko horren existentziak arrazoitzen badu publizitatearekin lortu nahi den helburua.

3. artikulua

1.- Bigarren artikulua adierazten duen erabilerak, edonola ere, Alkatetzaren baimena beharko du; eta Alkatetzak ez du baimenik emango artikulua honetako 2. atalean aipatutako ahalmena baliatuz Udalbatzarrak jarritako neurriak eta ondorengo baldintza hauek betetzen ez badira:

- a) Eskaera idatziz aurkeztea.
- b) Bermea jartzea, udal ondasunak eta instalazioak ondo erabiltzeko eta baimena eman zaienean zeuden egoera berean lagatzeko.
- c) Prezio publikoen zenbatekoak ordaintzea.

2.- Udalbatzarrak beste neurri batzuk erabaki ahal izango ditu, aurrekoez gain, haiek osatu edo garatzeko.

3.- Ondasunen erabilera amaitu ondoren, baimena eman zen unean zeuden egoeran utzi beharko dira.

4. artikulua

Baimenak, dena den, erakustaldiaren iraupena adieraziko du, bai eta ordenantza honetan jasotakoaren ildotik Alkatetzari egoki iruditzen zaion beste edozein zehaztapen eta baldintza ere.

5. artikulua

Udal ondasunak publizitate bitartekoekin materialki okupatuz egiten denean erabilera, Udalak erabaki dezake elementuak ezartzea edo espazioak mugatzea, eta agindu dezake interes desberdinak errespetatuta erabiltzea.

Pintadak

6. artikulua

1.- Ordenantza honen ondorioetarako, hauxe da "pintada": edozein teknika piktorearen bidez, horma, pareta, espaloi, galtzada edo horien egiturazko edozein elementutan eskuz egiten diren inskripzioak.

2.- Debekatuta dago pintadak egitea.

3.- Dena den, baimena eskatzen bada, higiezinaren jabeak ados daudela frogatzeko agiria aurkeztuko da nahitaez, 3. artikularen arabera bete behar diren gaineko baldintzak kontuan hartzeari utzi gabe.

7. artikulua

Udal zerbitzuek berehala ezabatuko dituzte pintadak. Pintada egin dutenei kobratuko zaie gastua, 13. eta 14. artikuluen arabera erantzukizunei utzi gabe.

Kartelak eta pankartak jartzea

8. artikulua

Ordenantza honen arabera definizioak:

- a) Kartelak.- Paperean edo sendotasun txikiko beste material batean inprimatu edo pintatutako iragarkiak, formatua zein-nahi ere den, azalera baten gainean jar daitezkeenak.
- b) Pankartak.- Tamaina handiko publizitate iragarkiak, noizean behin bide publikoan jartzen direnak edo egiturazko elementu bati itsatsitakoak.

9. artikulua

Debekatuta dago kartelak eta itsasgarriak jartzea udalerriko egiturazko edozein elementutan (hala nola, higiezinak, hormak, hormatxoak, zubiak, paretak, hesiak, hesi-hormak, espaloiak, hiri altzariak eta antzekoak).

Hauteskunde politikoaren garaian kartelak eta itsasgarriak jartzeko, berariazko akordioa hartuko da.

10. artikulua

1.- Ondorengo kasuetan bakarrik baimenduko da bide publikoan pankartak jartzea:

- a) Hauteskunde politikoaren garaian.
- b) Herriko edo tradiziozko jaietan.
- c) Alkatetzak berariaz adierazten dituen egoeretan.

2.- Baimen eskaeran adierazitako propaganda bakarrik eduki ahalko dute pankartek, beste edozein publizitate sartu gabe.

3.- 3. artikulua araberaren eskatzen direnez gain, ondorengo baldintzak ere bete beharko ditu pankartak jartzeko baimen eskaerak:

- a) Pankartaren edukia eta neurriak.
- b) Zein lekutan jarri nahi den.
- c) Zenbat denborarako jarri nahi den.

11. artikulua

1.- Pankartek bete beharko dituzten baldintzak zehaztuko ditu Alkatetzaren baimenak, eta, dena den, ondorengoak:

- a) Pankartaren azalera haizearen eragina gutxitzeko adinako zuloak izango ditu. Edonola ere, zulatutako azalera, gutxienez, pankartaren azalaren % 25 izango da.
- b) Pankarta jartzeko gutxienerako altuera: punturik baxuenetik neurtuta, bost metrokoa izango da, pankartak galtzada gurutzatzen duenean, eta hiru metrokoa, espaloi, paseo edo oinezkoentzako beste zona batzuetan.

2.- Faroletan eta bide publikoko egiturazko beste elementu batzuetan lotutako pankartak, soilik farolaren edo elementuaren puntu bakar batean lotuko dira.

3.- Ez da baimenduko pankartak zuhaitzetan eta antzeko beste elementu batzuetan eskegitzea.

12. artikulua

Kartelak eta pankartak erabilera amaitu eta hurrengo egunean erretiratuko dituzte interesdunek. Hala egiten ez badute, udal zerbitzuek kenduko dituzte, subsidiarioki, eta, beraz, jarri dituztenen kontura izango dira gastuak.

Arau-hausteak

13. artikulua

3. artikuluko 3. puntuaren arabera dagokionari utzi gabe, aurreko artikuluetan agindutakoa betetzen ez bada, dagokion zigor-espedienteari hasiera emango zaio, indarrean dagoen Administrazio Prozeduraren Legearen VI. tituluko 2. kapituluaren ezarritako prozeduraren arabera, eta gainera kartelak berehala erretiratuko dira.

14. artikulua

Arau-hausteak egiten dituztenak izango dira horien erantzule, eta, subsidiarioki, horien bultzatzaileak.

DATUAK

Hasierako onespena	1989ko irailaren 28an
Behin betiko onespena	1989ko azaroaren 30ean